2022ko azaroan erregistratutako langabezia

2022ko azaroan zehar LANBIDEko bulegoetan erregistratutako langabe kopurua murriztu egin da; 110.710ekoa da, hau da, aurreko hilean baino 1.034 langabe gutxiago (% 0,93ko beherakada). Aurtengo azaroak iazkoak baino bilakaera hobea izan du; baina, 2020koak baino okerragoa, nahiz eta azken honetako datuak osasun krisiak baldintzatutakoak izan ziren. 2019ko azaroan langabezia 1.564 pertsonatan jaitsi zen, baina iazko azaroan 650 pertsonatan soilik. 2013. urtetik aurrera, langabeziak behera egiteko joera eduki du azaroan, Gabonetako kanpaina aurreratu izan delako; urte hori baino lehen, langabeziak gora egiten zuen.

Nabarmendu behar da, azaro honetan erregistratutako langabetu-kopurua 2008tik hilabete horretan izandako txikiena dela. Ordutik hona, 2019koa izan da gehien hurbiltzen zaiona, baina hil honetan baino 3.067 langabe gehiago zenbatu ziren.



	aza.-08	aza.-09	aza.-10	aza.-11	aza.-12	aza.-13	aza.-14	aza.-15	aza.-16	aza.-17	aza.-18	aza.-19	aza.-20	aza.-21	aza.-22
Saldoa	6.901	1.865	706	2.373	2.991	-3.56	-2.09	-2.73	-3.48	-1.76	-916	-1.56	-6.03	-650	-1034

Aurreko urteko urriarekin alderatuz, 7.069 pertsonatan murriztu da langabezia. Errekuperazio azkar baten ondotik, urte-arteko saldoaren hobekuntza moteltzen ari da. V erako profila du krisiak; langabeziaren murrizketa azkar eta haundi baten ondotik, ezaugarri berberak dituen errekuperazioa.



- **SEXUA**

Azken hilabetean, gizonezkoen artean 322 pertsonatan murriztu da langabezia; emakumeen artean, berriz, 712 pertsonatan. Urte arteko saldoari dagokionez, gizonezkoen artean gehiago murriztu da langabezia (-4.469) emakumezkoen arten baino (-2.600). Krisi hasieran gizonezkoak izan baziren ere kaltetuenak, errekuperazio erritmo altuagoa izan dute. 2019ko azaroarekin alderatuz, 2.286 gizonezko gutxiago daude langabezian, emakumezkoak, berriz, 781 gutxiago dira. Gaur egun langabeen % 57,6 emakumeak dira.

- **ADINA**

Azken hilabete honetan, langabezia 30-54 urte artekoen artean murriztu da; beheko eta goiko adin tarteetan, aldiz, hazi egin da. Urte arteko bilakaeran, 44 urtetik beherakoen artean jaitsi da gehien langabezia; 35-44 urte eta 16-24 urte artekoetan izan du bilakaera onena. 54 urtetik gorakoen tartean hazi da soilik langabezia; % 0,98 hain zuzen ere.

- **JARDUERA EKONOMIKOA**

Azaroan, balio erlatiboetan, nabarmentzekoa da eraikuntzan (-%3,42%) eta industrian (-% 1,62) langabeziak izan duen beherakada. Beste muturrean, lehen sektorean gehien hazi da (+% 12,26), eta zerbitzuetan ere (% 0,16). Lehenengo lan esperientzia izan ez dutenen artean, % 0,86 hazi da azken hilabetean. Iazko datuekin alderatuta, nabarmentzekoa da beherakada honako sektoreetan; eraikuntza (% -16,29), industria (% -14,30) eta lehen sektorea (% -13,85). Zerbitzuetan % 1,51 murriztu da soilik eta lehenengo lan esperientzia izan ez dutenen artean %12,88 murriztu da azken urtean.

Datuak zehatzago aztertuta, azken hilabetean langabeziaren beherakada handiena izan duten jarduerak hauek izan dira:

47 Txikizkako merkataritza	-247
85 Hezkuntza	-190
53 Posta jarduerak	-115
87 Egoitza-establezimenduetako laguntza	-90

88 Ostaturik gabeko gizarte-zerbitzuetako jarduerak	-79
78 Enpleguarekin lotutako jarduerak	-55
86 Osasun-jarduerak	-52
Aitzitik, erregistratutako langabezia gehien handitu duten jarduerak honako hauek izan dira:	
Aurreko enplegurik gabe	259
56 Janari eta edari-zerbitzuak	66
81 Eraikinetarako zerbitzuak eta lorezaintzako jarduerak	34

- **LANGABEZIAREN IRAUPENA**

Hilabete honetan, iraupen luzeko langabezia 296 pertsonatan igo da (+%0,5), eta iraupen laburrekoa 1.330 pertsonatan murriztu da (-% 2,33). Urteko erreferentzian, jaitsiera handiagoa ikusten da epe luzeko langabeen kolektiboan, % 7,3 jaitsi baita; iraupen laburreko langabeen artean, berriz, % 4,70 baino ez da murriztu. Krisiaren luzapenak iraupen luzeko langabeziaren igoera esanguratsua eragin zuen, eta, zorionez, hori murrizten ari da; baina oraindik 54.878 langabe (% 49,6) epe luzekoak dira.

Epe luzeko langabezia handiagoa da 44 urtetik gorakoen artean; baita emakume eta Bizkaian erroldatutakoen artean ere. Azken hilabetean, bilakaera hoberena, emakumeek, 30 urtetik beherakoek eta Gipuzkoan bizi direnek izan dute.

- **LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA**

Hilabete honetan lurralde guztietan murriztu da langabezia. Araban, 2022ko azaroan baino 318 langabe gutxiago daude; guztira 19.007 pertsona daude egoera honetan. Lurralde horretan izan da jaitsierarik handiena; % 1,65, hain zuzen ere. Bizkaian 62.617 pertsona daude langabezian, 2022ko azaroan baino 602 gutxiago; % 0,95eko jaitsiera izan da. Gipuzkoan 114 langabe gutxiago daude aurreko hilean baino; 29.086 pertsona gutxiago, % 0,39ko jaitsiera.

Urte arteko saldoari erreparatuz Bizkaiak erregistratu du eboluzio hoberena % 6,76ko murrizketarekin; Gipuzkoak jarraitzen dio % 6,08ko murrizketarekin, eta, azkenik, Araban % 3,17 murriztu da langabezia.

Hiriburuak aztertuta, Gasteiz nabarmentzen da 291 pertsonatan murriztu baita langabezia (-% 1,98), Bilbon 119 pertsonatan (-% 0,55), eta Donostian, 17 pertsonatan (+% 0,24).

Eskualdeetako datuak aztertuz, langabezia Ezkerraldean jaitsi da gehien 174 langabe gutxiago baitaude; beherakada izan duten beste eskualde batzuk Ibaizabal (-103), Deba Garaia (-61) eta Nerbioi eskualdea (-53) dira. Bestalde, gorakada handienak honako eskualdeetan gertatu dira; Urola Kosta (+46), Aiara Bailara (+34), Deba Behea (-39) eta Bidasoa Behea (+24).

Erregistratuko langabezia indize altuenak dituzten udalerriak hauek izan dira: Alonsotegi (% 17,4), Sestao (% 16,37), Oion (% 16,08), Balmaseda (% 14,86) eta Lapuebla de Labarca (% 14,71).

- **LANGABEZIA-PRESTAZIOA**

2022ko azaroan 37.392 langabek kobratu dute langabezia-prestazioaren bat, hau da, aurreko hilean baino 481 langabe gutxiagok. Langabeen % 33,8k gizarte-prestazio hori jasotzeko eskubidea du. 20.352 langabek jasotzen dute ordaindutakoaren araberako prestazioa, hau da, langabeen % 18,4 dira horiek. 15.272 langabek (% 13,79), berriz, langabezia prestazioaren bat

jasotzen dute. Gipuzkoa da babes tasa handiena duen lurraldea (% 36,6), Bizkaian % 32,8koa da eta Araban % 32,7koa.

Aurreko hilarekin alderatuz, langabezia estaldura-tasa 0,12 puntu murriztu da; aurreko urtearekin alderatuz, aldiz, 0,42 puntu hazi da.

- **JATORRIA**

Langabeen % 16,8 (18.593 lagun), atzerritarrak dira. Aurreko hilarekin alderatuta, langabezia hazi egin da atzerritarren artean (+% 1,07); bertakoen artean, berriz, murriztu egin da (-% 1,32). Urte arteko erlazioan, atzerritarren arten langabezia % 0,66 murriztu da, eta bertakoen artean % 7,01.

Langabe atzerritarren % 34,3 Afrika iparraldekoak dira, % 23,4 Latinoamerikatik datoz, % 17,4 Europako Esparru Ekonomikotik, % 12,6 Saharaz hegoaldeko Afrikatik, eta % 6,1 Asiatik. Azaroan Latinoamerikatik etorritako pertsonen artean hazi da gehien langabezia (+79);

- **IKASKETA MAILA**

Langabeen % 60,2k (66.633 lagun), oinarrizko ikasketak ditu, gehienez ere. Azken hilean, oinarrizko prestakuntza dutenen artean 61 langabe gutxiago erregistratu dira; % 0,09 murriztu da langabezia azken hilean. Azken urtean % 6,27 murriztu da langabezia talde honetan.

Batxilergo-titulua duten pertsonak langabeen % 8,8 dira. Talde horretan % 0,89 murriztu da langabezia azken hilean, eta azken urtean, ere, murriztu egin da; % 7,49, hain zuzen ere.

Lanbide-heziketa ikasi eta langabezian dauden lagunak 21.222 dira, hau da, langabeen % 18,7. Talde honetan, azaroan, % 2,38 murriztu da langabezia, eta azken urtean, ere, murriztu egin da; % 4,92, hain zuzen ere.

Azkenik, langabeen % 12,4k (13.673 lagun), unibertsitateko ikasketak ditu. Ikasketa maila hau duten langabetuen artean % 2,70 murriztu da langabezia azken hilabetean eta, azken urtean, aldiz, % 5,22koa izan da murrizketa.

- **KONPARAKETA ESTATUKO DATUEKIN**

Estatuan, aurreko hilean baino 33.512 langabe gutxiago daude (% 1,15eko beherakada). Guztira 2.881.380 langabe daude erregistratuta; EAEn, berriz, % 0,93 murriztu da. EAEko mugakide diren autonomia-erkidegoetan langabeziak ondorengo bilakaera izan du: Nafarroan % 0,7 hazi da, Errioxan % 1,45 hazi da, Kantabrian % 1,09 hazi da eta Gaztela eta Leonen % 1,28koa izan da hazkundea. Katalunian % 0,28 hazi da eta Madrilen, aldiz, % 2,48ko murriztu da.

Lan-eskatzaile langabeak 2022ko azaroan

	Aza-2022	Urr-2022	Saldoa	Bil %
SEXUA:				
GIZONEZKOAK	47.111	47.433	-322	-0,68
EMAKUMEZKOAK	63.599	64.311	-712	-1,11
25 URTEZ AZPIKOAK:				
GUZTIRA	17.334	17.626	-292	-1,66
GIZONEZKOAK	8.330	8.354	-24	-0,29
EMAKUMEZKOAK	9.004	9.272	-268	-2,89
25-44 URTE:				
GUZTIRA	32.822	33.342	-520	-1,56
GIZONEZKOAK	12.744	12.978	-234	-1,80
EMAKUMEZKOAK	20.078	20.364	-286	-1,40

2022ko azaroan erregistratutako langabezia

45 URTEZ GORAKOAK:				
GUZTIRA	60.554	60.776	-222	-0,37
GIZONEZKOAK	26.037	26.101	-64	-0,25
EMAKUMEZKOAK	34.517	34.675	-158	-0,46
SEKTOREA:				
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	2.250	2.252	-2	-0,09
INDUSTRIA	11.308	11.542	-234	-2,03
ERAIKUNTZA	6.442	6.470	-28	-0,43
ZERBITZUAK	77.376	78.405	-1.029	-1,31
AURREKO ENPLEGURIK GABE	13.334	13.075	259	1,98
LURRALDE HISTORIKOA:				
ARABA	19.007	19.325	-318	-1,65
BIZKAIA	62.617	63.219	-602	-0,95
GIPUZKOA	29.086	29.200	-114	-0,39
EAE	**110.710**	**111.744**	**-1.034**	**-0,93**

ESKUALDEKO BILAKAERA

	Langabetuak	Erregistratutako langabezia indizea	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
			Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Bidasoa Behera	3.743	10,0%	24	0,65	-310	-7,65
Oarsoaldea	3.344	9,1%	-5	-0,15	-204	-5,75
Donostia-S.Seb.	6.956	7,8%	-17	-0,24	-632	-8,33
Donost.Mendebaldea	2.901	7,7%	-29	-0,99	-181	-5,87
Tolosaldea	1.828	7,7%	-41	-2,19	-45	-2,40
Urola Erdia	1.168	7,5%	-20	-1,68	-19	-1,60
Goiherri	1.653	7,6%	13	0,79	71	4,49
Deba Garaia	2.371	7,8%	-61	-2,51	-138	-5,50
Deba Behera	2.587	9,8%	-15	-0,58	-198	-7,11
Urola Garaia	1.068	8,7%	-9	-0,84	-36	-3,26
Urola Kosta	1.467	6,5%	46	3,24	-192	-11,57
GIPUZKOA	29.086	8,2%	-114	-0,39	-1.884	-6,08
Vitoria-Gasteiz	14.416	11,4%	-291	-1,98	-752	-4,96
Aialako Ibarra	2.242	12,0%	34	1,54	-45	-1,97
Arabar Errioxa	591	11,0%	14	2,43	-129	-17,92
Arabako lautada	705	9,3%	-17	-2,35	-22	-3,03
Gorbeia inguruak	295	6,3%	2	0,68	-12	-3,91
Arabako Ibarrak	405	7,9%	-3	-0,74	-2	-0,49
Arabako Mendialdea	92	5,9%	-6	-6,12	-10	-9,80
ARABA	19.007	11,4%	-318	-1,65	-648	-3,30
Gobela	4.428	8,8%	-1	-0,02	-387	-8,04
Txorierri	2.096	9,2%	-1	-0,05	-200	-8,71
Uribealdea	2.871	8,6%	-8	-0,28	-283	-8,97
Durangaldea	3.209	8,7%	-39	-1,20	-264	-7,60
Busturialdea	2.054	9,6%	-32	-1,53	-150	-6,81
Lea-Artibai	954	8,0%	-6	-0,63	-83	-8,00
Enkarterriak	1.887	12,4%	-22	-1,15	-156	-7,64
Arratia-Zornotza	1.397	8,0%	-47	-3,25	-152	-9,81
Arratia-Nerbioi	1.312	10,2%	-53	-3,88	1	0,08
Bilbo	21.646	12,8%	-119	-0,55	-1.162	-5,09
Ezkerraldea	16.369	13,2%	-174	-1,05	-1.273	-7,22
Ibaizabal	4.319	10,7%	-103	-2,33	-420	-8,86
BIZKAIA	62.617	11,2%	-602	-0,95	-4.537	-6,76
EAE	**110.710**	**10,3%**	**-1.034**	**-0,93**	**-7.069**	**-6,00**

* Bizkaia eta Arabako eskualdeen batura ez dator bat lurraldeko totalarekin, Orduña udalerria Bizkaikoa izanik Arabako Aialako Ibarra eskualdean kokatzen baita.